

**INGURUMEN, TURISMO eta GEOPARKE BATZORDEAREN BILERA**  
**AKTA**

BILERA ZENBAKIA: 2  
EGUNA: 2011/12/22 (osteguna)  
ORDUA: 19.00  
TOKIA: Udaleko bilera-aretoa.

**BERTARATUAK:**

Maider Zubikarai  
Xabier Ziaran  
Marisa Indamendi  
Unai Uribeondo (YakoSurf eskolaren eskaria puntuan soilik)

Idoia Alvarez  
Jasone Galdona

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Axier Oñederra (beste bilera bat zeukan ordu berdinean)  
Andoni Garrido  
Irantzu Alegria  
Bixente Zulaika  
Jose Antonio Udabe

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Gai ordena aldatzea proposatu zen eta Yako Surf eskolaren eskaria izan zen lehenik aztertu zen gaia.

**1. Yako Surf eskolaren eskaria**

Unai Uribeondok aurtengo udaran udalak surf eskola martxan jarri ahal izateko eskainitako laguntza eskertu zuen, ondoren udaletxean abenduaren 21ean eta 1440 sarrera zenbakia duen dokumentua azaldu zuen. Bertan, Yako Surf eskolak datorren udaran ere hondartzan surf eskola zerbitzua eskaini nahi duela dio eta horretarako beharrezkoa den tablak eta materiala gordetzeko etxola bat jarri nahi duela azaltzen du. Etxola, eskoileeran kokatu nahi du eta 6x3 metrotakoa izango litzateke. Gune hori

Eusko Jaurlaritzako Portu sailarena izanik, baimena aipatutako departamentuak eman beharko du. Hala ere, bertara eskaera egiteko udaletxearen onikusia eduki nahi du.

Bestalde, eta Eusko Jaurlaritzako Portu sailaren erabakia ezezkoa balitz, etxola hondarretan jarri nahiko lukeela azaldu zuen Unai Uribeondok.

Idoia Alvarezek hondarretan jartzeko eskaria "Costas" departamentuari egin behar zaiola azaldu zuen. Bera, jarriko da harremanetan departamentuarekin eta etxolak jartzea suposatuko lukeen kostearen zenbatekoa galdetuko du.

Azalpenak eman ondoren Unai Uribeondok bilera gela utzi zuen.

Batzordekide guztiak bat datoz, Surfa Debaren garapen turistikorako produktu estrategiko garrantzitsu bat da eta garbi dago Surfing Euskadi clubean egonik horrelako proposamenak bultzatu eta lagundu behar direla. Beraz, batzorde honek aho batez onikusi zuen Yako Surf eskolak luzatutako eskaera eta dagokion irizpena Gobernu Batzordera igorriko du bertan ere onartua izan dadin.

## 2. Aurreko akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.

2011ko urriaren 4ean egindako batzordearen akta irakurri eta aho batez onartu zen.

## 3. 2012rako aurrekontu proposamena

Maider Zubikaraik 2012rako aurrekontu proposamena banatu eta azaldu zuen.

<b>AURREKONTUAK UDALETXEA</b>	<b>2012 PROPOSAMENA</b>
Hondartzako instalakuntzak	3.050€
Hondartzako zerbitzuak	5.000€
Turismo Bulegoa	6.000€
Hondartzako zerbitzuen kanona	3.000€
Isurien tasa	25.000€
Ingurugiro kudeaketa	22.000€
Geoparkeko bisita gidatuak	3.000€
Merkataritza – merkagune jarduerak	1000€
Turismo Bulegoa - Promozioa	6.000€
Sigma hondartza (ISO)	5.000€
Agenda 21. Tokiko Ekintza plana.	6.500 €
Debegesa – Garapen Iraunkorra	2.603€
Debegesa – aisialdia eta turismoa	12.938€
Geogarapen	43.000€
	<b>DENERA</b>
	<b>144.091€</b>

#### **4. Debako hondartzan duna bat sortzeko proiektu pilotoa**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, Debako hondartzan dunak sortzeko aurkeztutako proiektuaren berri eman zen. (Dokumentua akta bukaeran ikus daiteke). Abenduaren 13an Departamentu horretako teknikaria den Leire Troitiño eta Landa garapenerako eta Biotopo Babestuaren kudeaketarako sailekoa den Jon Zulaika, hondartzara gerturatu ziren Debako udal ordezkariak (Ignacio Aznal, Axier Oñederra, Unai Lekube, Marisa Indamendi, M<sup>a</sup> Luisa Gainza, Bixente Zulaika, Xabier Ziaran, Maider Zubikarai, eta Silverio Urkiri) proiektua azaltzeko. Dunak Ondargain tabernaren inguruan sortuko dira, batzuk pasealekuarekiko paraleloki, eta beste batzuk ibaiarekiko paraleloki.

Proiektu honek hondartzako hondarra ez kanporatzea du helburu, Costas saileko oniritzia du, eta abian jartzeko behar den aurrekontua Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko du. Debako hondartzan ez ezik Orio eta Hondarribiko hondartzetan ere egingo da. Bestaldez, landaketekin hasi baino lehen proiektua herritarrei azaltzeko, Foru Aldundiak komunikazio ekimenak egingo dituela eta landareen landaketan herriko bi ikastetxeetako ikasleekin lan egingo zela ere adierazi zuten GFako teknikariek.

Batzordekide guztiak bat datoz proiektuarekin, beraz, batzorde honek aho batez onikusi zuen Debako hondartzan dunak sortzeko proiektu pilotua eta dagokion irizpena Gobernu Batzordera igorriko du bertan ere onartua izan dadin.

#### **5. Biotopo barneko ibilbideen sarea**

Deba-Zumaia itsasertza Biotopo Babestuko ibilbide sarea (2011ko urria) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa planaren zirriborroa (2011ko martxoa) jasotzen duen CDaren kopia batzorkideei banatu zitzaizkien.

Batzordeburuak Ibilbide sareko txostenarekin bat dator, II eranskinarekin izan ezik, Sakoneta ibilbidea egokitzeko eta zaintzeko egin daitezkeen obren azalpena aurkezten den atalarekin alegia. Maider Zubikarai, ez du beharrezkotzat jotzen 2. mailako zaborlegarrek materiala jartzea bidezidorraren zorua hobetzeko, ezta arekak irekitzea metatutako ura husteko. Beraz Ur Agentziari eta GFari benetan beharrezkoak direnean bakarrik egiteko eskaera luzatuko zaie.

Xabier Ziaranek, lan horiek ibiltariak inguruan beste bide berriak ez egiteko balio dutela gogorarazi zuen.

#### **6. Pobreaitz. Lursoruaren ikerketa**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailak kutsatuta egon daitezkeen zabortege publikoen lurzoruaren ikerketa bat egin duela azaldu zuen Idoia Alvarezek.

60. hamarkadan, Praileaitz kobaren inguruan dagoen Pobreaitz udal zabortegea zegoen, eta hara botatzen ziren udalerriko zabor guztiak eta Eusko Jaurlaritzak lurzoru publiko hori kutsatuta dagoen ala ez jakiteko ikerketa jarri du abian.

Ikerketa, azaroaren azkeneko astetan egin zen, pare bat egun iraun zuen eta udalaren eta UR Agentziaren baimenarekin egin zen. Bertan, sasiak kendu eta lurzoruaren katak egin zituzten bakarrik, Udaltzaingoak eta herritarrek ateratako zenbait argazkitan beste nolabaiteko lanak egin direla ematen duen arren.

Xabier Peñalver, arkeologoa ere, kexatu egin zen bertan egindako lanak zirela eta, baina argi azaldu zitzaion (udalak eta geroago Foru Aldundiak) katak baino ez zituztela

egin. Badirudi Eusko Jaurlaritzari bertan egin beharreko lanei buruz Foru Aldundiko Kultura sailari abisatzea ahaztu zitzaioa.

Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketaren emaitza urtarrilean emango digute eta ondoren udalak dagozkion erabakiak hartu beharko ditu.

## **7. Geoparkeko sedea**

Geoparkeko Estatutuak egiterakoan Geoparkearen sedea Debako Turismo Bulegoan zegoela erabaki zen eta hala jaso zen. Orain arte, Geoparkeak ez du izan pertsonal propiorik eta gestioa Debegesaren bitartez egin da, hala ere garbi dago proiektua garatzeko geoparkeak lantalde propio bat behar duela eta datorren urteari begira Geoparkea kudeatuko duen zuzendari bat kontratatuko da. (Kontratazioaren %80 Eusko Jaurlaritzak diruzlagunduko du). Bestalde, Foru Aldundiari, Deba eta Zumaia arteko biotopo babestuko kudeatzailea izanik eta biotoporako aholkularia jartzea berari dagokionez, Geoparkeak behar duen aholkulari zientifikoa ere berak izendatu eta bere gain hartzea eskatu zaio. Aldundiak eskaera onartu ezker izendatutako aholkulari zientifikoa geoparkeko lantaldean izango genuke. Eta, bestalde, landa eremua hau da Karsta garatu ahal izateko ere pertsona bat beharrezkoa denez, Eusko Jaurlaritzako nekazaritza sailari pertsona hori jartzeko eskaera bat luzatu zaio. Era honetan, hiru pertsona izan ditzazkegu datorren urtean geoparkea kudeatzen eta Geoparkeko sedea Deba izanik, guri dagokio lantaldeari lan gune bat eskaintzea.

Udalak ez dauka aukera gehiegirik eta Turismo bulegoko erakusketa gela egokitzea erabaki zen. Maider Zubikaraik erakusketa gela beste nonbaiten jartzeko aukerak aztertzen ari direla azaldu zuen

Xabier Ziaranek Aldundiak izendatuta daukan Biotopoko koordinatzaile zientifikoak Debarekiko duen jarrera salatu zuen. Idoia Alvarez eta Jasone Galdona bat datoz Xabierrek azaldutakoarekin, gaia kezkarria da eta Aldundiari egoeraren berri eman beharko geniokela uste dute bi teknikariek.

## **8. Besteak**

### **-Praktika onen programa berria**

Jasone Galdonak Debabarrenean Praktika Onak Kalitate turistikoa sustatzeko programan bigarren talde bat sortu eta bertan herriko 10 establezimendu egongo direla azaldu zuen. Azken hauetaz gain aurretik praktika onen programan daudenak eta Q turistikoa dutenak kontutan hartuz gero herrian kalitatea hobetu nahian lanean diharduten establezimendu kopuru polita dagoela ikus daiteke.

### **-Merkatariak**

Azken urteetan Merkatariekin hasitako lan dinamika oso positibotzat jo zuen Jasone Galdonak. Hainbat ekimen egin dituzte desfilea, kafearen astea, merkatu irekiak... eta beste batzuk udalarekin elkarlanean gabonetako pina eta boltsa berrerabilgarriak adibidez.

Guztiontzako onuragarria da era honetan lan egitea eta horrela jarraitzea da udalaren helburua.

Bestalde, Jasone Galdonak Eusko Jaurlaritzak Hiri merkataritzan lankidetzaz, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako dirulaguntza bide bat daukala azaldu zuen. Eskaera luzatu ahal izateko udalak gune historikoa izan ez ezik merkataritza elkartea bat izan behar du eta proposatutako ekimenek merkataritza elkarteari onikusia izan behar dute.

Laguntza bide honen kontura, udalak 2012an herriguneko zakarrontziak, plazako eserlekuak eta kaleetako izenen plakak berritzeko eskaera luzatu zuen, ekimenera aurrekontua guztira 16.326,50€ko da eta 14.693,85€ko diru laguntza onartu zaigu.

### **-Foiletuak 2012**

Aurrekontutan turismo Bulegoa – promozioa partida proposatu den eran onartuko balitz, hurrengo urtean zenbait foiletu berrargitaratu beharko dira, besteak beste: PR44a, GR121a, herriko planoak euskaraz eta gaztelaniaz eta frantsesez eta ingelesez eta Santa Maria elizakoa gaztelaraz.

Berrargitarapenak egin aurretik Jasone Galdonak zuzenketak egin ohi ditu eta batzordekide guztieei aipatu foiletuetan egin daitezkeen aldaketan proposamenak turismo bulegora ekartzeko gonbita egin zien.

### **-FITUR 2012**

2012 urtarrilaren 18tik 22ra Madrilen Fitur turismo feria izango da eta ohi bezala Euskadiko standean Euskal Kostaldeko beste herriei batera egongo gara.

### **-Arraindegi eta harategietako Tupperrak**

2012ko aurrekontuekin, Ingurumen sailak, berrerabiltzeko poltsen kanpainari jarraituz, arraindegi eta harategietan tupperrak erabiltzeko kanpaina ezartzeko asmoa zuela azaldu du Idoia Alvarezek. Kanpaina kutxa erakundeko ekogune izeneko lankidetasunarekin burutuko da, tupperraren %75 ordainduko dutelarik.

## **9. Eskariak eta galderak**

Ez ziren egin

Besterik gabe bilera bukatu zen.

**DEBAKO HONDARTZAN**

**DUNA BAT SORTZEKO**

**PROIEKTU PILOTUA**

# DEBAKO HONDARTZAN DUNA BAT SORTZEKO PROIEKTU PILOTUA

## GAUR EGUNGO EGOERA



Argi ikusten da, lau urteetan arean egin duen atzerapena eta 2011ean dagoen egoera larria da. Negu honetan ez bada zerbait egiten, area paselekura joango da, ez duelako oztoporik. Proiektu pilotu bat denez, hondartzaren zati txiki batean proposatzen dugu egitea eta kokapena hondartzaren esker aldea izango da, planoan ikus daitekeen bezala.

Hala ere Udaleko teknikoekin adostuko ditugu egiteko guztiak.

## **PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAREN AZTERKETA**

(ECOLOGIA LITORAL EMPRESARI ESKATUTAKO TXOSTENA)

### **INTRODUCCIÓN**

Las costas móviles sufren una fuerte dinámica bajo la influencia de fenómenos meteorológicos como viento y precipitación, del efecto hidrodinámico de la masa de agua, es decir el oleaje, las mareas y las corrientes del mar y de las actividades humanas. La acción del mar es determinante pues controla la fuente de sedimentos. El oleaje selecciona y transporta sobre la playa los elementos finos que, la acción del viento moviliza y modela en forma de dunas. El carácter oblicuo del oleaje induce, a menudo, una deriva litoral que es la causa del transporte longitudinal sedimentario.

La influencia humana ejerce también una gran influencia en el modelado costero. Los efectos de las obras en el litoral, al interferir en la dinámica sedimentaria costera suelen consistir en cambios en los depósitos de sedimentos, especialmente en los procesos erosivos y sedimentarios.

Las zonas dunares asociadas a las playas sufren también los efectos del cambio. En concreto las obras de canalización realizadas durante este último siglo han cambiado sustancialmente la dinámica sedimentaria del estuario con la desaparición de la totalidad del sistema dunar.

Por otro lado, la construcción de paseos marítimos elimina el movimiento cíclico natural de la línea de costa hacia el mar o hacia la costa y la posibilidad de formar un sistema dunar que mantenga la arena cuando hay aporte de sedimentos y la ceda al sistema cuando hay disminución de los mismos. De esta manera, al perder ese depósito natural de arena que conforman las dunas, las playas quedan mucho más expuestas a los cambios cíclicos naturales, perdiendo la capacidad de autoadaptación ante estos cambios.

Los objetivos de la restauración de estos ecosistemas consisten en la adaptación de las técnicas utilizadas en otros países como Holanda, Dinamarca, Reino Unido, etc. adaptadas a las características climáticas y ecológicas del litoral cantábrico. Estas técnicas utilizan sistemas blandos, no agresivos con el medio ambiente y económicos que frenan la degradación y consiguen una regeneración integral de las zonas dunares.

Las actuaciones de protección y regeneración dunar, tienen por objeto facilitar la colonización vegetal, que es la responsable de la formación y el mantenimiento de los sistemas dunares.

Los métodos empleados dependen de cada caso en particular, pero se basan en, una vez eliminadas las causas del problema, estabilizar los depósitos arenosos utilizando técnicas que reducen de la erosión eólica y reintroduciendo la vegetación dunar generalmente barrón (*Ammophila arenaria*) y grama marina (*Elymus farctus*), principal responsable del equilibrio dinámico de las dunas.

### **DIAGNÓSTICO**

Como en muchas desembocaduras de los ríos de la Cornisa Cantábrica, las acumulaciones arenosas en sus márgenes son muy frecuentes, el origen de estos sedimentos proviene de los procesos erosivos continentales, los cuales transportan estos materiales erosionados aguas abajo hasta la desembocadura, donde dejan de estar sometidos a la dinámica fluvial y entran en la dinámica costera.

En condiciones de oleaje suave, estos sedimentos son transportados por el viento, desde la playa alta hacia el interior, así se inicia la colonización de especies vegetales adaptadas a estos medios tan



estériles. Las primeras comunidades vegetales, están básicamente constituidas por *Cakile maritima*, la cual desde su germinación hasta la dispersión de semillas apenas transcurren tres meses, estas plantas son las encargadas de la formación de las dunas embrionarias, que no dejan de ser acumulaciones puntuales de arena, actuando a modo de trampas, reteniendo las partículas que el viento lleva en suspensión.

La aparición de estas especies suele ser un claro indicador del lugar donde se instalará el futuro sistema dunar. Una vez que esta planta desaparece deja paso a las plantas que generan las dunas primarias, como ejemplo más significativo se encuentra *Ammophila arenaria* y *Elymus farctus*, formando las comunidades vegetales típicamente dunares, mucho más estables en el tiempo, las cuales van colonizando la playa debido a su rápida reproducción vegetativa. Esta propagación tiene lugar siempre y cuando la duna primaria tenga aporte de arena.

El sistema se desestabiliza en el momento en que se realizan las obras de infraestructura de los espigones y de los puertos. En la actualidad, a ambos lados exteriores a los espigones se han formado sendas playas, la occidental de escaso tamaño, pero con mucha menor presión turística, por lo que sería un punto interesante para plantearse la reintroducción de algunas especies dunares extinguidas en la zona, o en peligro y la oriental, de mucho mayor tamaño, de características netamente urbanas que es donde se plantea llevar a cabo esta actuación.

Dicha playa experimenta una dinámica eólica típica, con un viento dominante del noroeste que transporta la arena hacia la zona oriental apareciendo dos problemas asociados entre ellos; en primer lugar el volumen de arena de la playa se va perdiendo y en segundo lugar esta arena es transportada hacia el paseo marítimo originando molestias.

## POSIBILIDADES DE ACTUACIÓN

Con el doble objetivo de solucionar los problemas antes mencionados y de reconstruir un sistema dunar en equilibrio ecológico, se propone regenerar y proteger el sistema dunar.

Las actuaciones que se proponen consisten en aplicar las técnicas de **regeneración**, con el objeto de lograr una topografía y una cobertura de vegetación suficientes que permitan su propia dinámica natural.

Estas técnicas, como la instalación de captadores de arena para lograr una estructura topográfica adecuada y la plantación de vegetación dunar para la fijación de sus superficies, utilizan los procesos naturales para conseguir su función; el viento transporta la arena que se sedimenta detrás de los captadores y la vegetación se va estableciendo hasta conseguir una cobertura que permita su fijación y equilibrio.

Además se recomiendan actuaciones de **protección**, para reducir la presión por parte de los usuarios de la playa.

Las actuaciones de restauración deberán, en cualquier caso, compatibilizarse con el uso público de la playa, dado que se trata de playas estrechas sometidas a una afluencia turística importante.

Las actuaciones concretas son las siguientes:

- Restituir la morfología del perfil del cordón dunar instalando sistemas de captadores en dos filas continuas con el propósito de conseguir de un modo progresivo el relieve dunar aerodinámico y estable.

- Revegetar toda la superficie estabilizada con plantas dunares, en concreto grama marina en la zona correspondiente a la duna primaria y barrón en la zona correspondiente a la duna secundaria. Estas plantas, gracias a su adaptación a las condiciones microclimáticas y edáficas muy especiales consiguen la fijación de las arenas de las dunas reduciendo su salida al exterior del sistema playa-duna.
- Proteger el cordón dunar actual mediante la instalación de un cerramiento perimetral que, sin impedir el uso de la playa, evite la entrada indiscriminada y el pisoteo en la zona donde la vegetación se asienta.

Además es necesario considerar un mínimo mantenimiento, pues como se ha demostrado en otras actuaciones similares realizadas, la labor continua de reparación de las infraestructuras y de la vegetación y captadores instalados que pudieran dañarse por fenómenos naturales o por la actividad humana, es fundamental para lograr el éxito que se pretende.

La reconstrucción de este sistema dunar se puede llevar a cabo mediante la implantación de una serie de módulos o unidades dunares constituidos por un cierre perimetral, en cuyo interior se instalan dos filas de captadores de arena y se revegeta toda la superficie.

Estos módulos, de unas dimensiones aproximadas de unos 80 m de longitud y 20 m de anchura.

Van separados entre sí, dejando un pasillo de unos 5-8 metros para permitir el paso de los usuarios. Es recomendable actuar en toda la longitud de la playa para conseguir disminuir la cantidad de arena en movimiento y conseguir la formación de un cordón dunar homogéneo.

En total, se contempla una superficie de unos 150 m de longitud y unos 20 de anchura, es decir una superficie de 3.000 m<sup>2</sup> que plantando con una densidad de 10 plantas/m<sup>2</sup> supondría un total de 30.000 plantas.


La longitud total del cerramiento perimetral sumando estos cuatro módulos, sería de unos 340 metros.

Con el objeto de informar a los usuarios y conseguir su implicación ante este tipo de actuaciones, por otro lado, imprescindible para su éxito, se plantea la instalación de carteles explicativos a lo largo de la plantación a ambos lados de los módulos.

## AURREKONTUA

Duna prestaketa lanak, are mugimendua.....	7.500,00€
Plantazioa eta babesak, esku lana.....	6.900,00€
Materiala.....	2.000,00€
kartelak.....	700,00€
Guztira.....	17.100,00€

## PLANOA



## **PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAREN JUZTIFIKAZIOA**

Gaur egun gure lurraldeko hiru hondartzetan dugun arazoari irtenbide bat ematea da gure helburua. Helburu honek ez du bilatzen, irtenbide azkar eta merkea, baizik, denboran iraungo duen irtenbide iraunkor eta naturala, kostua gutxituko duena, hondartzaren kalitatea handituz.

Hondartza gure udalean integratutako garrantzi handiko espazio natural bat bilakatuko da eta mantenu minimo bat eginda, hondartzaren atzerapena ekidituko dugu.

Hondartzaren azalera erabilgarria gutxitzen da, baina, ez benetan erabiltzen dena. Hiru hondartza hauek, azalera handiko hondartzak dira eta soberako area dutenez, hondartzako erabiltzaileak nahikoa leku izaten jarraituko dute.

Garbiketa zerbitzuak ere azalera gutxiago izango duenez garbiketarako, erabiltzen den azalera hobeto garbituko dute, duna guneko area ez bait da ikutu behar (gende batzuren erabilera desegokia jasotzeko mantenu minimoa izan ezik).

Dunaren gorakada

Udal agintariak, pasealekutik itsasoa ikusi nahi dute eta beldur dira, ikuspegi hori galduko dutela. Ezin daiteke jakin zenbat hasiko den duna, baina gertu ditugun dunen eboluzioak erakutsi digu, ez direla duna altuak izango, gehienez, 0,50 eta 1,00metro inguru. Hondartza mota hauetan, dunak zabaleran hasten dira, altueran baino gehiago. Dena den, duna eboluzionatzen doan ehinean, aldaketak egin daitezke. Ez dugu ahaztu behar, proiektu pilotu bat dela hau, arazo jakin bati aurre egin eta ingurune aberatsago bat sortzeko helburuarekin.